USKUŔTZ ETA EUZKEREAR-EN ALDEZ

# TENE'REN IDAZTIJA

"Jaungoiko - Zale" deritxan bazkun guŕgaŕi-malagaŕijak bidalduta, *Tene*'ren idaztija aŕtu dogu.

Idazti au "Jaungoiko-Zale"-ren iraŕkolean, Zornotza'n, egindа dago; guztiz edeŕto. Azala ta baŕuko ingija politak dira, ta ingoski-aŕteko idantzezkijak be, on-onak.

*Tene* nor dan jeltzale euzkeldunak ondo dakije. ¿Nok eztau atsegin-atsegiñez irakuŕi bere idazkal ta oleŕki samuŕ-gozuak?

Orain argiĺara urten dan idazti onetan, Miren Itziaŕ'i zuzendutako idazki edeŕak dagoz. Idazkijok Uskuŕtza (Erligiñua) ta Euzkerea zabaldu ta goralduteko egiñak dira. Usain gozua, usain atsegingaŕija dauke eurok.

*Tene* euzkel-idazle jatoŕa ta eŕimia da. "Euzkadi"-egunorokuan, "Euzko-Deya"-n eta beste aldizkingi batzuten azija erein dau. Baña ez edozelan, azija aŕtu ta axetara bota, nora jausten dan begiratu-barik, ez. *Tene*'k Uskuŕtz eta Euzkel-azija erein dau maĺekiro, arduraz, ziatz eta lasteŕ erneteko erean (moduban).

Miren Itziaŕ'i egindako idazkijak (emeretzi idazki), sakon-sakonak dira ta euzkeldunen bijotza ukuteko alagalaknak.

Oŕez ganera, ogetairu oleŕ (bertso) polit eskintzen dau kuz idazti oŕetan. Bata bestiбaño samuŕ-gozuagua.

*Tene*'ren idaztijak auŕeraka da aundija eragingo dautsa Euzkereari. Olako gauza leunak eta irakuŕgaŕijak gitxiĺan agertzen yakuz, zoritxaŕez.

Gure txaluak *Tene*-neskatila euzkeldun jakintsubari, bata "Jaungoiko - Zale"-ri, olako idazti bat egin dabelako.

Eta azkenengo oni eskaŕik asko, ijeki bat bidaldu dauskulako.

Nun eta zegan saltzen dan eztakigu. Ostantzian, esango geunke.

*Tene*'ren idazti au egin eta argiĺaltzeko, jeltzale-aŕtian aŕpidia (suskriziñua) zabaldu zan. Bala diru m... polita batu be bai.

Edeŕto egindа,

Zorijonak eurei.